

www.ornitho.eus plataforma. 2017. Urteko balantzea.

Egilea:

Juan Arizaga^{1*}, Beñat Díaz¹

¹Aranzadi Zientzia Elkartea, Zorroagagaina 11, 20014 Donostia

*Harremanetan jartzeko: jarizaga@aranzadi.eus

Txosten hau honela aipatu:

Arizaga, J., Díaz, B. 2017. **www.ornitho.eus** plataforma. 2017. Urteko balantzea.

Argitaratu gabeko txostena. Aranzadi Zientzia Elkartea.



www.ornitho.eus

www.ornitho.eus proiektua ondorengoaren ekimen bat da:

LAGUNTZAILEAK:



FINANTZATZAILEAK:



AURKIBIDEA

SARRERA: WWW.ORNITHO.EUS ATARIA.....	6
KIDEAK.....	7
BEHAKETEN EGIAZTAPENA.....	8
ERABILERA ESTATISTIKAK.....	10
ERABILTZAILE KOPURUA.....	11
EKARPEN KOPURUA: ESTATISTIKA OROKORRAK.....	13
EKARPENEN BANAKETA DENBORAREN ARABERA.....	15
BEHAKETEN BANAKETA TAXONOMIAREN ARABERA.....	17
BEHAKETEN BANAKETA GEOGRAFIKOA.....	18
HEDAPENERAKO ETA JENDEA ERAKARTZEKO IKASTAROAK.....	20
ESKER ONAK.....	22

OHAR GARRANTZITSUA: www.ornitho.eus plataforma etengabe eguneratzen denez, edozein erabiltzailek edozein unetan iraganeko behaketak gehitu ditzake. Honela, txosten honetan agertzen diren estatistikak, ekarpenen zenbatekoari eta denboraren, taxonomiaren eta geografiaren araberako ekarpenen banaketari buruzkoak, 2018. urteko urtarrilaren 22an, 22:00tan egindako kontsulta batean oinarritzen dira. Txosten honetan ageri diren estatistiken edozein aldaketa gerora gehitutako behaketen ondoriozkoa izango da.


SARRERA: WWW.ORNITHO.EUS ATARIA.

Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) pertsona eta elkarte ezberdinez osatutako sare garrantzitsu bat du, urtero faunaren aipamen ugari jasotzen dituen lurrez guztian zehar. www.ornitho.eus ataria, Aranzadi Zientzia Elkartearen ekimena dena (www.aranzadi.eus), EAEn faunaren erregistroa, datuen hedapena eta kontsulta erraztuko duen erraminta moduan sortu da.

Bere sorreratik, www.ornitho.eus atariak izaera publikoa izan du. Horregatik, sistemako datuak erregistratuta dagoen edozein erabiltzailek eskuratu ditzake. Testuinguru honetan, ataria Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemari (ENIS) lotuta dago, Eusko Jaurlaritzak kudeatutakoa.

Bestalde, www.ornitho.eus ataria "ornitho"-ren parte da. Gaur egun, atariaren sare hau 9 estatutan eta Katalunia eta EAEn ezarrita dago.

(Irudia. 1).



1. irudia. Faunaren behaketen aipamenak erregistratzeko (bai hegazti, baita beste taldeenak ere, atariaren arabera) "ornitho" ataria duten lurraldeak (2016an eguneratua).

. Irudia: www.biolovision.net.

KIDEAK.

www.ornitho.eus ataria elkarlanean landutako proiektu bat da eta bertan partikularrek zein naturaren kontserbazioari loturiko erakunde ezberdinek parte hartzen dute. 2017. urte bukaeran 16 erakundek kolaboratzen dute plataforman, Aranzadi Zientzia Elkarteak barne. Hauek dira:

Administrazio Publikoak:

- ✓ Eusko Jaurlaritza.
- ✓ Arabako Foru Aldundia.
- ✓ Bizkaiko Foru Aldundia.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundia.

Elkarteak:

- ✓ Aranzadi Zientzia Elkarteak.
- ✓ Arkamurka Natur Taldea.
- ✓ Itsas Enara Ornitologi Elkarteak.
- ✓ Suspergintza Elkarteak.
- ✓ "Txepetxa" hegaztien zientzi-eraztunketarako elkarteak.
- ✓ Urdaibai Bird Center (Aranzadi Zientzia Elkartearen barruan).
- ✓ Zerynthia elkarteak.

Fundazioak eta bestelako erakunde publiko eta erdi-publikoak:

- ✓ Cristina-Enea fundazioa (Donostiako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia).
- ✓ Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (Vitoria-Gasteizko Udala).

Kideen kolaborazioa, erakunde bakoitzaren alorraren arabera, hainbat lanetan oinarritzen da, hala nola, www.ornitho.eus plataforma promozionatzea, behatzaileen heziketa (espezieak identifikatzeko), datuak (behaketak) plataforman sartzea edo aipamenean egiaztatzea.

BEHAKETEN EGIAZTAPENA.

Ornitho-k aurkezten duen abantailetako bat Egiaztatze Batzorde baten existentzia da. Adituen talde batek osatzen du batzorde hau eta zalantzazkoak diren behaketa guztiak berrikustea du helburu. Hau, gehienetan, identifikatzeko zailak diren espeziekin gertatzen da, edo hegaztiren bat EAE-n ez-ohikoa den garai batean behatua izan denean. Egiaztatze prozesuan, erabiltzaileei informazio gehiago eman dezaten eskatzen zaie identifikazioa errazteko eta aipamena ontzat hartzeko (gehienetan gertatzen den moduan). Egiaztatze Batzordeko kideek egiten duten lana altruista da eta erabateko esker ona merezi dute. Hauek izan dira 2017. urtean Egiaztatze Batzordeko kideak (alfabetikoki ordenatuak):

- ✓ J. Aihartza (saguzarrak).
- ✓ A. Aldalur (hegaztiak).
- ✓ M. Azpiroz. (landareak).
- ✓ G. Belamendia (hegaztiak).
- ✓ C. Cabido (anfibioak eta narrastiak).
- ✓ D. Calleja (hegaztiak).
- ✓ C. de Dios (hegaztiak).
- ✓ S. de Juan (hegaztiak).
- ✓ R. Escobés (lepidopteroak).
- ✓ M. Etxaniz (hegaztiak).
- ✓ J. Ferreres (hegaztiak).
- ✓ J. A. Gainzarain (hegaztiak eta odonatuak).
- ✓ Y. García (landareak).
- ✓ I. Garin (anfibioak eta narrastiak).
- ✓ H. González (hegaztiak).
- ✓ J. González (ugaztunak).
- ✓ A. Gosá (anfibioak eta narrastiak).
- ✓ A. Herrero (hegaztiak).
- ✓ M. Iglesias (anfibioak eta narrastiak).
- ✓ S. Lorenzo (lepidopteroak).
- ✓ A. Luengo (hegaztiak).
- ✓ E. Marcos (zetazeoak).

- ✓ I. Mezquita (lepidopteroak, odonatuak).
- ✓ Y. Monasterio (lepidopteroak).
- ✓ G. Ocio (hegaztiak, zetazeoak).
- ✓ L. Pelozuelo (himenopteroak).
- ✓ J. M. Pérez de Ana (denak).
- ✓ I. Sarabia (hegaztiak).
- ✓ X. Saralegi (hegaztiak).
- ✓ A. Unanue (hegaztiak).
- ✓ I. Zuberogoitia (hegaztiak).

Egiaztatze Batzorde honi, Ezohiko Behaketen Batzordea (EBB) gehitu behar zaio, 2017an abiarazi dena. Hau, Euskadiko Batzorde Ornitologikoaren (EBO; www.ornitologia.eus) barruan dago eta bere helburua Euskadin ezohikoak diren hegaztien behaketak berrikusi eta homologatzea da. Ezohiko behaketa hauek zerrenda batean zehazten dira, Euskadiko hegaztien zerrenda patroitik eratorria. Zerrenda hau EBO-ren web-orrian eta www.ornitho.eus-en bitartez eskuratu daiteke. Homologazio lanean, EBB-k sistematikoki aztertzen ditu ornitho atariaren bidez jasotzen diren ezohiko behaketa guztiak. Atarian, aztertzen ari diren behaketak ⚠️ ikurrarekin azaltzen dira. Homologatuak (onartuak) berriz, ikur hau izaten dute ⚠️✅.

EBB osatzen dute:

- ✓ A. Aldalur.
- ✓ G. Belamendia.
- ✓ D. Calleja.
- ✓ C. de Dios.
- ✓ J. A. Gainzarain.
- ✓ G. Gorospe.
- ✓ Idazkaria (ez du bozkutzen): J. Arizaga.

ERABILERA ESTATISTIKAK.


2017. urtean zehar, www.ornitho.eus plataforma 9.307 erabiltzaile ezberdinek kontsultatu zuten (IP), 57.037 saio hasi zituzten eta 658.419 orrialde bisitatu. Honela saio bakoitzeko 11,54 orri ikusi zituzten. Saioko iraupena 05:15 minutukoa izan zen. %15,5 saio berri lortu ziren, gainerako %84,5-a itzulitako erabiltzaileek egindakoak izanik (hau da, jadanik ataria kontsultatua zutenak).

Perfil soziologiko batetik aztertuta, saioen %61 35 urte azpiko erabiltzaileei dagokie, maximoa 25-34 urteen artean lortuz. 65 urte baino gehiagoko erabiltzaileek saioen %5,5 hasi zituzten. Sexuari dagokionez, %54,15 gizonek hasitako saioak izan ziren eta %45,85 emakumeek hasitakoak.

Jatorriari dagokionez, ataria 83 herrialdetan kontsultatu da. Saioen %87,8 (50.092) Espainian burutu ziren. Frantziak jarraitzen dio %8,8ko balioarekin (5.012 saio). Gainontzeko herrialdeetatik irekitako saioak ez dira %1era iristen herrialde bakoitzean, eta gehituta %3,4-ko balioa lortzen dute.

ERABILTZAILE KOPURUA.


2. Irudia. 2017an www.ornitho.eus-en egindako alden erlazioa.



2015eko martxoan plataforma ireki zenetik 2017ko abenduaren 31ra arte 1.005 erabiltzaile erregistratu dira. 2017an 284 erregistro berri egon ziren. Alden denboraren araberako banaketa 2. irudian aurkezten da.

Erabiltzaileen jatorriari dagokionez, %67,12 (682) EAEkoak edo espainiar Estatuko beste lekuetakoak dira. ornitho.eus plataforma lau hizkuntzatan erabili daiteke: gaztelania, euskara, frantsesa eta ingelesa. 569 erabiltzailek (hau da, %65,6) hizkuntza lehenetsia gaztelania dute. Euskara eta frantsesa datoz jarraian, erabiltzaileen %20,5 eta %16,2-rekin, hurrenez hurren. Azkenik, %6,7-ak soilik erabiltzen du ataria ingelesez. (3. Irudia).

3. Irudia. I. www.ornitho.eus atarian alta emandako erabiltzailek lehenetsitako hizkuntza, 2017ko abenduaren 31an eguneratua. Laburpena: ES, gaztelania; EU, euskara; FR, frantsesa; EN, ingelesa.



EKARPEN KOPURUA: ESTATISTIKA OROKORRAK.

2017. Urtea amaitzean plataforman 341.003 behaketa daude, 132.259 (hau da, %38,8) 2017koak izanik. 2017an aurreko urtean baino ia %20 behaketa gehiago erregistratu dira.

1.Taula. 2016an 1.000 behaketa baino gehiago egin zituzten lehen hamar erabiltzaileen behaketa kopurua. Taldeak: HEG, hegaztiak; UGL, ugaztunak (lurtarrak); UGI, ugaztunak (itsastarrak); SAG, saguzarrak; ANF, anfibioak; NAR, narrastiak; ODO, odonatuak; LEE, lepidopteroak (egunekoak); LEG, lepidopteroak (gautarrak); HIM, himenopteroak (liztor asiaticoa); MUS, bibalboak (zebra-muskulua), LAN, landare exotiko inbaditzaileak. Bigarren eskuko datuak ez dira kontuan hartu.

	J. F. Esparcia	E. Azkue	S. Alarcón	Urdaibai B. C.	I. Novoa	I. Navas	D. Navas	K. Aldama	I. Gutiérrez	P. Oyarzabal
HEG	18.082	16.665	10.580	11.592	5.319	6.288	6.021	5.600	5.196	5.086
UGL	7	9	24	0	196	45	54	20	3	19
UGI	2	3	1	0	1	0	0	3	2	0
SAG	0	4	0	0	0	0	0	0	0	0
ANF	2	0	13	0	323	1	0	0	0	3
NAR	10	0	87	0	60	6	5	12	2	1
ODO	0	0	241	0	57	0	0	1	91	0
LEE	0	0	1.019	0	1.017	1	1	21	12	0
LEG	1	0	44	0	182	0	1	1	1	0
HIM	0	0	33	0	13	1	1	1	0	0
MUS	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
LAN	0	0	898	0	102	3	0	0	0	0
Guztira	18.104	16.681	12.940	11.592	7.270	6.345	6.083	5.659	5.307	5.109

Erabiltzaile bakoitzeko ematen den behaketen erlazioari dagokionez, eredu asimetriko positibo bat antzematen da, hau da, erabiltzaile gehienek 100

behaketa baino gutxiago burutu zituzten eta gutxiengoa dira behaketa asko erregistratu zituztenak (4. Irudia). Joera hau ohikoa da www.ornitho.eus bezalako proiektuetan. 2017an behaketa kopuruen errekorra J. Esparciak lortu zuen berriz ere, 18.104 behaketekin (2016ko errekorra gaindituz), horietako ia guztiak Plaiiaundiko Parke Ekologikoan ikusitako hegaztienak. Orohar, 19 erabiltzaile egon ziren 1000 behaketa baino gehiago partekatu zituztenak (1.taulan behaketa gehien egin dituzten lehengo hamarrek ageri dira).

2. Taula. Taxoi kopurua (espezieak, nagusiki) eta behaketak argazkiarekin edo soinuarekin (a. eta s., hurrenez hurren), ornitho.eus atarian erregistratuak guztira edo 2017ko abenduaren 31ra arte. Laburdurak 1. taulan bezala.

	Taxoiak a.(GUZTIRA)	Beh. a. (2017)	Taxoiak s. (GUZTIRA)	Beh. s. (2017)
HEG	352	1.701	30	6
UGL	31	62	1	0
UGI	9	18	0	0
SAG	3	0	0	0
ANF	12	71	3	0
NAR	27	88	0	0
ODO	52	515	0	0
LEE	108	329	0	0
LEG	42	40	0	0
HIM	2	4	0	0
MUS	1	0	0	0
LAN	16	263	0	0
ORK	5	8	0	0
Guztira	660	3.099	34	6


Bestalde, atariak dagoeneko argazki eta soinu grabaketa ugari biltzen ditu (→8.000), batez ere hegaztienak. 2017an, argazkiak dituzten behaketen %55a (aipamen bakoitzean argazki bat baino gehiago egon daiteke) hegaztienak izan ziren. (2. Taula). Guztira, 2017an argazkiekin erregistratutako 3.099 behaketa

egon ziren. Soinuekin erregistraturiko behaketak oso gutxi izan ziren (6 aipamen, denak hegaztienak; 2. taula).

Espezieei dagokionez, sisteman 660 taxoiren argazkiak daude (gehienak espezieak izanik). 352 hegaztienak dira. Irudiak, identifikazioa zaila den espezetan, oso erabilgarriak dira Egiatzatze Batzordearen edo EBB-aren lana errazteko.

EKARPENEN BANAKETA DENBORAREN ARABERA

4. irudia. 2017an www.ornitho.eus atarian erregistratutako behaketen kopurua.




Denborari dagokionez, urteko ekarpenen maximoa apirilean eman zen 13.668 aipamenekin (4. irudia), 2016ean eman zen joerarekin bat egiten duena. Maximo hau seguruenik bi arrazoi nagusiri dagokio: apirilean gertatzen da umatze aurreko hegazti pasea, eta ondorioz espezie eta indibiduo ugari aurkitzen diren hilabetea da; bestalde, apirila aldera udaberria antzematen hasten da,

temperaturak epeldu egiten dira eta egunak luzatu, eta bi baldintza hauek animatu egiten dute mendira edo landara ateratzera, neguko hilabete gogorrek eragindako geldialdia pasa eta gero. Urteko minimoa, berriz ere otsailean behatu zen (7.682 behaketa). Orokorrean, hilabeteko aipamenen batezbestekoa 2017an 11.022koa da, hau da, aurreko urtean baino 2.000 behaketa gehiago batezbeste.

Datuak asteka banatuta, 2016an ikusitakoarekin alderatuta oso banaketa desberdina dugu 2017an. Maximoa igandean lortu zen berriz, ia 400 aipamenero batezbestekoarekin, 2016an lortutako balioaren azpitik (5. Irudia). Aldiz, aste barruan 2016an baino media askoz altuagoak erregistratu dira, 300 behaketen gainetik geratu diren balioekin (2016an batezbesteko \leftarrow 200-koa zen). Gainera, astelehen eta ostegunetako batezbesteko altuak nabarmentzen dira eta, neurri apalagoan, astearte eta larunbatak (5. Irudia). Errekorrei dagokienez, behaketa gehien egon zen eguna 2017ko ekainaren 18a larunbata, izan zen, 931 behaketekin.

5. irudia. 2017an astean zehar egindako behaketen batezbestekoa.



BEHAKETEN BANAKETA TAXONOMIAREN ARABERA

Talde taxonomikoei dagokienez hegaztiak dira, alde handiarekin, behaketen gehiengoa metatzen dutenak (3. taula). Horrela, 2017an behaketen %93a hegaztienak izan zen, aurreko urteetako balioak baino pixka bat txikiagoa. Honek, beste talde taxonomikoetan iaz baino aipamen gehiago sartu direla erakusten du. Ondoren datoz eguneko lepidopteroak (%2,5), odonatuak (%1,5) eta landaredi exotiko inbaditzailea (%1,0). Gainerako taldeek %1 baino balio baxuagoak lortu dituzte. Guztira 708 taxoi erregistratu ziren. (4. Taula).

3. taula. ornitho.eus plataforman 2017. urtean eta aurretik egindako behaketak taxoika. Laburdurak 1. taulako berdinak.

	2017 aurretik	2017
HEG	193.734	123.006
UGL	4.677	3.250
UGI	50	41
SAG	44	15
ANF	3.090	958
NAR	2.192	426
ODO	2.335	1.932
LEE	4.677	3.250
LEG	158	272
HIM	225	69
MUS	7	0
LAN	479	1.417
ORK	0	8
Guztira	208.744	132.259

4. taula. www.ornitho.wus plataforman 2017an erregistraturiko taxoi edo espezie kopurua. Laburdurak 1. taulako berdinak.

	2017	GUZTIRA
HEG	394	467
UGL	29	41
UGI	10	12
SAG	8	16
ANF	14	17
NAR	28	35
ODO	49	53
LEE	110	125
LEG	42	57
HIM	2	2
MUS	0	1
LAN	17	17
ORK	5	5
Guztira	708	848

BEHAKETEN BANAKETA GEOGRAFIKOA.

Probintziaka, Gipuzkoa izan zen behaketa gehien bildu zituena, %53,5-arekin (5. taula). Taldeka, Bizkaiak gainditu du himenopteroen kasuan (%53,6)(5. taula).

Guztira, EAEko 246 udalerritan dago behaketaren bat (227 herri 2016an). Irun izan da, berriz ere, behaketa gehien jaso dituen herria. 28.195 erregistro egon ziren, gehienbat Plaiaundiko Parke Ekologikoaren ekarpenari esker. Hau Gipuzkoan urte berdinean jasotako behaketen %39,8 da eta EAEn bildutakoaren %21,3a. Balio altuak izan arren, ehuneko hauek jaisten doaz aurreko urteekin alderatuta. Honekin, ulertzen dugu EAEko beste gunetan proportzionalki aipamenak igotzen ari direla.


5. taula. 2017an EAE-ko probintzia bakoitzean egin ziren behaketen kopurua. Trebiñuko Konderriko behaketak Araba bezala zenbatu dira.

	ARA	BIZ	GIP
HEG	22.457	33.617	66.932
UGL	207	305	353
UGI	0	17	24
SAG	0	0	15
ANF	354	80	524
NAR	71	148	207
ODO	643	373	916
LEE	1.182	926	1.142
LEG	43	55	174
HIM	10	37	22
MUS			
LAN	92	819	506
ORK	1	0	7
Guztira	25.060	36.377	70.822

Aipamen banaketa geografikoari dagokionez, estaldura onargarri bat dugu lurralde osoan zehar. Hala ere, arreta jartzen badugu, eremu batzuk ikusten dira estaldura oso txikia edo nulua dutenak (6. irudia). Hau, argi eta garbi, Gipuzkoa eta Bizkaia barnealdeko eremu batzuetan gertatzen da, hala nola, Arabako erdi-hegoaldean, estaldura okerrena duen eskualdea, argi eta garbi. Azterketa zehatz bat egiten duen artikulu bat idatzi da gai honi buruz Muniben [1] www.ornitho.eus atariko "Dokumentuak" atalean topatuko duzu.

[1] Arizaga, J., Rodríguez-Pérez, J. 2017. Distribución geográfica de la avifauna y la ciencia ciudadana en el País Vasco: una aproximación a través del portal www.ornitho.eus. Munibe 65: 29-39.

6. Irudia. 2017an ornitho.eus atarian erregistraturiko aipamen guztien banaketa geografikoa. Puntuen tamaina aipamen kopuruari dagokio.



HEDAPENERAKO ETA JENDEA ERAKARTZEKO IKASTAROAK.

2017. urtean zehar hainbat ikastaro egin ziren espezieak identifikatuko dituzten behatzaile berriak erakartzeko, batez ere talderik ezezagunentzat edo aipamen gutxiago dutenentzat. Aipatu nahi ditugu:

Odonatuak:

- ✓ Ortuella (BIZ). Egin zen eguna: 2017/05/07.
- ✓ Guardia (ARA). Egin zen eguna: 2017/05/20.
- ✓ Laboratorium, Bergara (GIP). Egin zen eguna: 2017/05/27.

Lepidopteroak:

- ✓ Urdaibai Bird Center (BIZ). Egin zen eguna: 2017/04/29-30.

Herpetofauna:

- ✓ Ortuella (BIZ). Egin zen eguna: 2017/05/07.
- ✓ Guardia (ARA). Egin zen eguna: 2017/05/20.
- ✓ Laboratorium, Bergara (GIP). Egin zen eguna: 2017/05/27.

Hegaztiak:


- ✓ Zenbait ikastaro, hasiberrientzat eta maila ona dutenentzat, hegaztien behaketari buruzkoak. Donostiako hegazti habiagileen atlasaren markoan eman ziren ikastaroak. Informazio gehiago lortzeko bisitatu www.atlass.eus ataria.

Halaber, plataforma topaketa teknikoetan promozionatu da, ahozko ekarpenen bidez:

- ✓ Arizaga, J. El portal www.ornitho.eus: presente y futuro. UPV/EHU. Leioa. Egin zen eguna: 2017/02/15.
- ✓ Arizaga, J. El portal www.ornitho.eus. Izki P. N.(Araba). Egin zen eguna: 2017/03/28.
- ✓ Arizaga, J. The citizen science and decision making in the BasqueCountry: the www.ornitho.eus portal. BidRex mintegia (INTERREG). Bilbo. Egin zen eguna: 2017/06/14-15.
- ✓ Laso, M., Arizaga, J. Premio Ornitho Euskadi. Biodibertsitateari buruzko Foro Soziala. Plaiaundi (Gipuzkoa). Egin zen eguna: 2017/11/14-15.

Hedapenaren arloan mugarri bat izan da Ornitho Berriak sortu izana. Sei hilez behin argitaratzen den aldizkari honek, atariaren hedapena lortzeko, ondorengo atalak lantzen ditu: azken sei hilabeteko behaketa nabarmenenak, berrikuntzak, elkarrizketak, espezie zailenak identifikatzeko gida txiki bat... Ornitho Berriak eskuragarri dago "www.ornitho.eus-ri buruz" atalean.

7. Irudia. Ornitho Berriak aldizkariko lehengo alearen argazkia, euskaraz eta gaztelaniaz eskeintzen da.



ESKER ONAK

www.ornitho.eus plataforma proiektu kolektibo bat da eta, ondorioz, atari honen arrakasta haien aipamenekin laguntzen duten guztien meritua da. Eskerrik asko guzti horiei, haien lanarekin EAEko faunari buruzko ezagutza hobetzen laguntzeagatik. Eskertu egin behar da, era berean, Eusko Jaurlearitzaren babesa, eta bereziki bere Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarena, plataformaren finantziazioan laguntzeagatik.